

Irakasleen Konpetentzia Digitalaren garapenerako ikastaroak

Txanda irekiak 2025-2026

2022-2023, 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteetan, hezkuntzako sistema osoko irakasle askok ahalegin handia egin zuten bere konpetentzia digitalaren maila eta curriculum berriaren ezagutza maila hobetze aldera; gehienek A2, B1 edo/eta B2 maila eskuratzeko formazioa egin zuten.

Dena den, hainbat irakaslek ezinbestekoa dute haien konpetentzia digitala garatzen jarraitzea. Hori dela eta, Hezkuntza Sailak, Irakasleen Konpetentzia Digitalak akreditatzeko ikastaroak eskaintzen jarraitzen du.

2025-2026 ikasturtean izango dugun **txanda irekiko** Irakasleen Konpetentzia Digitalaren (IKD) garapenerako ikastaroen **deialdi bakarra** izango da, **plaza mugatuekin** eta **zuzenketen kudeaketa Berritzegune Nagusitik** izanik. Horrez gain, **akreditazio-ebazpen bakarra** argitaratuko da, beraz, parte hartzaile bakoitzak ikastaro bakar batean eman ahal izango du izena.

Hasteko, gogorarazi nahi dugu IKD ikastaro edo ubideren batean **onartua izateko aurrez dagokion maila akreditatua izan beharko dela**.

Adibidea: B1 ubidea (10 ordu) egin nahi izanez gero, ikastaro hau hasi aurretik Hezigunean A2 mailaren akreditazioa jasota izan behar da.

Jakin, aurrez adierazi dugun prozesua ikastaroetan onartzeko soilik dela. Hau horrela izanik, **beste erkidegotako IKD akreditazioen tituluak** zuen Heziguneko atal pertsonalean jasotzeko, aurrez **Tramitagune bitartez** egin beharko da eskaera.

Ikastaroen deskribapena eta baldintzak bereziak:

- **B1 osoa (60 ordu)**: Inolako akreditazio digitalik ez dutenentzat, A1 mailako egiaztagiria (akreditazioa) dutenentzat eta akreditazioa mailarik egiaztatu gabe dutenentzat.
- **B1 ubidea (10 ordu)**: Hezigunean dagoeneko A2 mailako egiaztagiria (akreditazioa) dutenentzat ubide ikastaroa.
- **B2 ubidea (10 ordu)**: Hezigunean dagoeneko B1 mailako egiaztagiria (akreditazioa) dutenentzat ubide ikastaroa.

Ikastaroen eskaintza kronograma:

Egingo den eskaintza bi ataletan dago bananduta:

- **B1 mailako ikastaro osoaren** (60 ordukoa) **eskaintza bakarra** izango dugu ikasturte osoan.
- **B1 eta B2 ubideen** ikastaroekin (10 ordukoak) **deialdi bakarra** eskainiko da.

		Izen-ematea	Ikastaroa	Erreklamazioak	Ebazpena
B1 OSOA (60 ordu)	1. modulua	Urriak 23 - 30	Azaroak 10 - 30	Ekainak 8 - 10	Ekainak 19
	2. modulua		Abenduak 1 - Urtarrilak 18		
	3. modulua		Urtarrilak 19 - Martxoak 1		
	4. modulua		Martxoak 2 - Apirilak 5		
	5. modulua		Apirilak 6 - Maiatzak 10		
	6. modulua		Maiatzak 11 - 31		
B1 ubidea (10 ordu)			Urtarrilak 13 - Martxoak 8	Martxoak 16 - 18	Martxoak 25
B2 ubidea (10 ordu)			Apirilak 13 - Maiatzak 31	Ekainak 8 - 10	Ekainak 17

Izen-ematea:

Ikastaroen eskaintza [Heziguneko](#) “Prestakuntza-katalogoa” ataletik egingo da. Izen-emate eskaera modu egokian egiteko, jarraitu beharreko pausuen azalpenak eta bideo tutoriala dokumentu honetan daude:



[Hezigunetik izen-emate prozesua](#)

Ikastaroan izena emateko baldintza orokorrak:

- **Maisu-maistra edo/eta irakasle titulazioa** duten partaideek soilik jasoko dute Irakasleen Konpetentzia Digitaleko maila adieraziko duen akreditazioa. Izenak dion moduan, ikastaro hauek Irakasleentzat soilik dira.
- Izen-ematea itxi aurretik Hezkuntza Sistemari **gutxienez egun bat irakasle moduan lan egin** izana, lan fitxan horrela jasota egonik.
- Izen emate garaitik ikastaroa hasi arte **Lanbide Heziketako zentro integratueta lanean daudenek ezin** izango dute ikastaroetan parte hartu.

- Ikastaroen deialdi bakarria egongo da eta gerta daiteke **partaide kopurua mugatua izatea**. Muga hau gainditzen baldin bada, **lehentasun** batzuk jarraituko dira onarpenerako:
 - Aurreko deialdiren batean maila berdineko ikastaro batean matrikulatuta egon EZ izana. Partaide berriek izango dute lehentasuna, aurrez aukera izan ez dutenek.

Oharrak:

- Ikastaro batean izen-emate eskaera egin ondoren, hurrengo egunetan **onartua izan zaren jakin beharko duzu**. Hau izen-ematea itxi eta ikastaroa hasi bitartean adieraziko da, bakoitzaren Heziguneko “Nire prestakuntza” atalean.
- Ikastaroan onartuta egonez gero, ez da onarpen mezurik jasoko posta elektronikoa. Bakoitzaren ardura izango da **Hezigunean begiratzea zein den bere onarpen egoera**. Onartuta daudenek, ikastaroa hasten den egunean moodlegunera sarbidea Hezigunetik izango dute. “Nire prestakuntza” atalean agertuko da **“Moodle ikastaroetara sartu”** botoi berri bat ikastarora sartzeko.
- Edozein arazo edo zalantza izanez gero, Berritzegune Nagusiko Digitalizazio esparruarekin harremanetan jar zaitez: **bndigitalizazioa@berritzeguneak.eus**

IKD akreditatzeko mailak eta hauek lortzeko orain arteko ibilbideak:

- A1 maila:**
 - A1 mailako ikastaro osoa (40 ordu).
- A2 maila:** Bi ibilbide izan ditugu maila hau lortzeko, ondorengo ikastaroak gaindituz:
 - A2 osoa (50 ordu).
 - A1 osoa (40 ordu) + A2 ubidea (10 ordu).
- B1 maila:** Hiru ibilbide (izan) ditugu maila hau lortzeko, ondorengo ikastaroak gaindituz:
 - B1 osoa (60 ordu).
 - A2 osoa (50 ordu) + B1 ubidea (10 ordu).
 - A1 osoa (40 ordu) + A2 ubidea (10 ordu) + B1 ubidea (10 ordu).
- B2 maila:** Lau ibilbide izan(go) ditugu maila hau lortzeko, ondorengo ikastaroak gaindituz:
 - B1 osoa (60 ordu) + B2 ubidea (10 ordu).
 - A2 osoa (50 ordu) + B1 ubidea (10 ordu) + B2 ubidea (10 ordu).
 - A1 osoa (40 ordu) + A2 ubidea (10 ordu) + B1 ubidea (10 ordu) + B2 ubidea (10 ordu).